




KAIXO!

Zer dakizu Bilboko Portuari buruz?

Guzti-guztia modu atsegin eta dibertigarrian erakutsi nahi dizugu, **BILBOKO PORTUA ETA ITSASADARRA FUNDAZIOAK** antolatutako erakusketa honen bidez.

Urterik urte, bilboko portuak zuzeneko eragina izan du ibaiertzeko udalerrien garapen ekonomiko, sozial eta kulturean (Barakaldo, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Zierbenan, hain zuzen). Hori dela eta, 2011n **BILBOKO PORTUA ETA ITSASADARRA FUNDAZIOA** sortu zen, arlo soziokulturalera eta aisialdira bideratutako interes orokorreko ekintzak eta jarduerak sustatzeko eta garatzeko helburuarekin. Horien bidez, portuaren historia eta berritasunak eman nahi ditu ezagutzera, Bizkaiko eragile ekonomiko nagusietako bat denez.

Portura hurbiltzea proposatzen dizugu, **POP ART**-en ikuspegiarekin. 1950eko hamarkadaren hondar urteetan sortu zen arte-mugimendu horren ezaugarri nagusia da masa-komunikabideetatik hartutako irudiak pinturan aplikatzea.

Hala, edukiontzi bakoitzari **POP ARTE**ko artista bat dagokio:

- 1- Bilboko Portua. Informazio orokorra - Roy Lichtenstein
- 2- Portuaren harremana ibaiertzeko udalerriekin: Barakaldo, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Zierbena - Jasper Johns
- 3- Munduarekiko lotura - Frank Stella
- 4- Ingurumen-politika - Andy Warhol
- 5- Itsas Zerbitzuak eta Garraioa - James Rosenquist
- 6- Salgaiak - Jackson Pollock

1. Bilboko portua. Informazio orokorra

Bilboko portuaren kokapena pribilegio hutsa da, Bizkaiko golkoaren erdian dagoelako; alegia, Europako Atlantikoaren erdian. Mundu osoko 800 portu baino gehiagorekin ditu loturak, Amerikako eta Europako iparraldeko garrantzitsuenak, tartean.

Roy Lichtenstein

Roy Fox Lichtenstein (New York, 1923ko urriak 27 - New York, 1997ko irailak 29), pop-artearen pintore, artista grafiko eta eskultore estatubatuarra zen, komikiaren artearen eskala handiko interpretazioengatik ezaguna.

2. Municipios.

Portuaren Harremana Ibaiertzeko Udalerriekin: Getxo, Erandio, Leioa, Zierbena, Santurtzi, Portugalete, Sestao, Barakaldo, Bilbo. Portuaren eragina Ibaiertzeko Udalerriekin historian zehar.

Jasper Johns

Jasper Johns (Augusta, Georgia, 1930eko maiatzak 15) pintore, eskultore eta artista grafiko estatubatuarra da. 1950eko hamarkadan enkaustikaren teknikaz egin zituen bandera estatubatuarrek dira bere obrarik ezagunenak nazioartean.

3. Munduarekiko lotura

2013. urtean bost kontinenteetako 2.789 itsasontzi sartu ziren Bilboko portuan, eta zifra horrek ederki erakusten du zer-nolako ontzi kopuru handia ibiltzen den.

Frank Stella

Frank Stella (Malden, Massachusetts, 1936ko maiatzak 12) pintore eta grabatzaile estatubatuarra da, minimalismoaren eta abstrakzio postpiktorikoaren alorretan egindako lanagatik ezaguna.

4. Ingurumen-politika

Bilboko portuak lehenetsiak ditu Kalitatea, Prebentzioa eta Ingurumena Kudeatzea jarduerak.

Andy Warhol

Andrew Warhola (Pittsburgh, Pennsylvania, 1928ko abuztuak 6 - New York, 1987ko otsailak 22), Andy Warhol izenez ezaguna, artista plastiko eta zinemagile estatubatuarra izan zen, rol erabakigarria izan zuena pop-artearen sorkuntzan eta garapenean. Ilustratzaile profesional gisa arrakasta handia izan ostean, Warholek mundu mailako ospea lortu zuen pinturan, abangoardiako zinemagintzan eta literaturan egindako lanagatik. Hedabideekin zuen harreman onak eta modernitatearen guru izateak lagundu zioten ospea lortzeko bidean.

5. Zerbitzuak eta itsas garraioa

Bilboko portuaren jarduerak barne hartzen dituzte itsasontzi bat porturatzen denetik salgaiek edo bidaiariak zerbitzugunea utzi arteko eginbide guztiak

James Rosenquist

James Rosenquist (Grand Forks, Ipar Dakota, Ameriketako Estatu Batuak, 1933ko azaroak 29) pop-artearen artista estatubatuarra da. Neurritz kanpoko irudi zatikatuak hartzea, eta horiek elkartzea, gainjartzea eta bata bestearen ondoan ipintzea da haren espezialitatea. Mihise gainean egiten ditu bere lanak, istorio ikusgarriak sortzeko asmoz.

6. Salgaiak

Bai al zenekien Bilboko portua dela Bizkaiko eragile ekonomiko nagusietako bat? Hala bada, eragin handia du portuaren jarduerak eguneroko bizitzan. Produktu arrunt asko, elikagaiak, petrolioaren deribatuak, autoak, etab., tartean, itsasoz iristen dira gurera, Bilboko portura, hain zuzen ere.

Jackson Pollock

Paul Jackson Pollock (Cody, Wyoming, Ameriketako Estatu Batuak, 1912ko urtarrilak 28 - Springs, New York, 1956ko abuztuak 11) AEBetako influentzia handiko artista eta espresionismo abstraktuaren aitzindaria izan zen. XX. mendeko pintore estatubatuar garrantzitsuenetakotzat hartzen da.



Bilbao
PORT



B
Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

Barakaldo
CIUDAD-HIRIA

E!

Getxo
bizi ezazu

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

Portugalete

SANTURTZI
udala - ayuntamiento
Stz

S
Sestao
Udala
Ayuntamiento

Zierbena
Udala
Ayuntamiento de Zierbena



BERGÉ
Marítima

BUNGE

COMPAÑIA DE REMOLCADORES
IBAI ZABAL, S.A.

ERHARDT

MacAndrews

NIRINT
IBERIA, S.L.

noatum
CONTAINER TERMINAL
BILBAO

PUENTE BIZKAIA
Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura
Unesco
Declarado
Patrimonio Mundial en 2006

TRANSFENNICA
Highway of the sea

Sacyr
CONSTRUCCIÓN

ZAMAKONA
YARDS